

Herriko kontseiluaren 2018.02.02ko bilkura

Hor zirenak : Jean-Michel Coscarat, Marie-Agnès Haristoy, Antton Curutcharry, Lisa Dumoulin, Daniel Ithurburua, Bernadette Mousquès, Isabelle Arangoits (à partir de la délibération n°7), Frantxoa Mocho, Annie Juantorena, Eñaut Larre, Sébastien Clauzel, Monika Indart, Agnès Gorostiague, Christelle Errecart Jean-Baptiste Lambert, Marie-Baptiste Etcheverry, Dominique Mendibil.

Hor ez zirenak : Betti Bidart (ahalordea Antton Curutcharryri emana), Betti Olçomendy (ahalordea Jean-Michel Coscarateri emana), Isabelle Arangoits (ahalordea Monika Indarteri emana 6garren deliberamendua arte).

Gai ordena :

- 1. Inbestizamenduen gastuen ordaintzea buxet nagusia bozkatu aintzin :** Buxet nagusia bozkatu aintzin heldu diren inbestizamendu gastuen pagatzeko, deliberamendu bat hartu behar da.
Herriko kontseilua, aho batez Inbestizamenduen gastuen ordaintzea buxet nagusia bozkatu aintzin alde agertu da.
- 2. Biribilguneen loreztatzea :** Sharon East andereak herriari proposatu dako hiru biribilguneen loreztatzea. Bestalde, Irulegiko Sotoak mahastia landatu nahi luke Intermarcheko parez pare den biribilgunean. Hori kondutan hartuz, East Andereak dossier berri bat muntatu du et 5100€ko debisa bat presentatzen du.
Herriko kontseilua, aho batez bi biribilgune loreztatzearen alde agertu da.
- 3. Biribilguneen argitzea :** Biribilguneak loreztatu aintzin behar da argia ezarri. SDEPA-ko zerbitzuekin hurbildu behar harko da ikusteko diru langutzak badirenez.
Herriko kontseilua, aho batez biribilguneen argitzearen alde agertu da.
- 4. Teknikari laguntzaile postuen sortzea :** Jean-Claude Cuiburu erretreta hartzearen gatik, Jaun auzapezak proposatzen du 2 urte undar huntan CAE kontratuan zen presuna bat hartzea lehenik urte batez ikastun langile gisa izanen dena.
Herriko kontseilua, aho batez teknikari laguntzaile postu baten sortzea alde agertu da.
- 5. Obralaritzaren hautatzea oraingo herriko Etxearen arraberritzearentzat :** Hiru erantzun ukan ditugu : Vanel Duluc Anderea (49 680€koa zergarik gabe), Alaman Jauna (45 000€koa zergarik gabe) et Joly Anderea (48 000€koa zergarik gabe). Proposamen apalena Alaman jaunarena da, Merkatu publikoen batzordeak proposatzen du horren hautatzea.
Herriko kontseilua obralaritzaren hautatzearen alde agertu da, 17 boz alde eta 2 abstentzio.
- 6. Lur saltzea Departamendu Kontseiluari :** Herriak, Etcheverry izeneko lekuan den lursail bat Departamendu Kontseiluari saldu behar dako 78 €rendako.
Herriko kontseilua, aho batez lursail baten saltzea Departamendu Kontseiluari alde agertu da.
- 7. Hirigintzako aktoen instrukzioa Euskal Hirigune Elkargoaren bidez :** Bi urte honetan Errobiko herri elkargoak eraikitze baimenak ikertzen dituztela. Euskal Hirigune Elkargoak eskumena hori hartu du 2017z geroztik bainan hemendik aitzina, herriak, instrukzioen gostuaren erdia bere gain hartuko du eta beste erdia Euskal hirigune Elkargoak.
Herriko kontseilua, aho batez Hirigintzako aktoen instrukzioa Euskal Hirigune Elkargoaren bidez alde agertu da.
- 8. Trinketaren kudeatzailearen hautatzea eta alokatze kontratuaren izenpetzea :** 2017ko Abendoko publizitatearen ondotik eta 4 kandidatuen deialdia egin ondotik trinketaren berrizhartzeko, Batzorde bat (Auzapeza, bi axuant eta kontseilu ordezkari bat) Sylvie Castanchoa anderea hautatu dute (4 kandidatura gibelera egin dute elkarrizketak pasatu aitzin). Alokasaria ez da aldatzen eta alokatze kontratua laster izenpetua izanen da.

Herriko kontseilua, aho batez trinketaren alokatze kontratuaren izenpetzearen alde agertu da.

9. Egoera zibila numerizazioaren debisa : Numeris enpresak 6000€ inguruko debisa bat prosatzen du paperezko 4900 egoera zibilen aktoen numerizatzeke.

Herriko kontseilua, aho batez debisa onartzearen alde agertu da.

10. Ordutegi programa baten debisa : Ordutegien, oporraldien, eritasun geldialdien, RTT-en eta langilen lan denboraren urtekatzea segitzeko, proposatua da ordutegi programa baten hartzea. Proposatu debisa 1207 €-koa da (ikuskatze eta formakuntza bestalde) eta 506€ urteko abonamenduarentzat. Debisa hori ikusiz, egoki litzateke jadanik programa hori erabiltzen duten elkargoeri beren ikus moldea galde egitera. Ondorioz erabakia gibelatua da.

11. D948 zati baten desklasatzea : Departamendu Kontseiluak herriari gibelerat eman dako herri-barneko bide zati bat saihezbidea ideki delarik (salbu Oronos aitzinetik Izpegui bide arte). Herriari utzia den zati hori behar da desklasatu. Gainera, Departamendu Kontseiluak 38000€ itzuli ditu berantago Zubi-Puntatik Oronos aitzin arte egin behar diren estali bide lanentzat. Seinalea, saihezbide eta bide desklasatua arteko bidegurutze heinean berrantolatua izanen da.

Herriko kontseilua, aho batez D948 zati baten desklasatzearen alde agertu da.

12. Camping-car aparkalekuko egokitze obreen kontsulta : Lurra eresia da. SCE-k proposamen bat egin du lanen obralaritzan (19790€-koa zergarik gabe lanen segitzeko) bainan bertze debisa batzuen beha gira. Debisa desberdinak ukaitearekin enpresaren hauta eginen da eskaintza deialdiaren batzordean.

13. RIFSEEP-aren ezartzea Teknikari laguntzaileentzat : Teknikari laguntzaileen RIFSEEP-aren ezartzeko dekretuaren agertzearen ondotik eta Teknikari batzordearen aldeko iritziaeren ondotik Jaun Auzapezak proposatzen du RIFSEEP-aren ezartzea C mailako teknikari laguntzaileer.

Herriko kontseilua, aho batez, RIFSEEPa ezartzearen alde agertu da.

14. Hilherri arraberritzearen proiektua : Françoise Pruet, APGL-koa, hilherrirat etorri da Herria laguntzeko uzte estatuan diren hil hobien kontaketan. Prozedura bat abiarazi behar da. Gainera, APGL-eko informatika zerbitzuak proposatzen du lekuaren egoera-akta bat drone baten bidez 258€ prezio finkoa.

Herriko kontseilua, aho batez, hilherri arraberritze proiektu abiatzearen alde eta hilherri planoaren egitea drone baten bidez alde agertu da.

15. Ura eta saneamendu buxeten desegitea : Ura eta saneamenduaren eskumenak eskualdatuak izan dira urtarrilaren 1ean Euskal Hirigune Elkargoari. Hortakoz, bi buxet horiek desegin behar dira eta kontu izkirioneak egin behar dira. Herriko kontseilua, aho batez kontu izkirionen egiteko alde agertu da.

16. Ura eta saneamendu buxeteko soberakinen eskualdaketa : Euskal hirigune elkargoko eta herriko deliberamenduen ondotik, ura eta saneamendu eskumenak Hirigune Elkargoari eremanak izan dira. Buxet horien soberakinak eta defizitak berriz eremanak izaiten ahal dira.

Herriko kontseilua, aho batez, soberakinen eta difiziten berriz eremaitzearen alde agertu da.

17. Zuhaitz landatze kanpalekuan: 8 zuhaitz kenduak izan dira. Itzala ukaiteko zuhaitz horiek berriz landatu behar dira, 1193€rentzat.

Herriko kontseilua, aho batez, 8 zuhaitzen landatzea kanpalekuan, alde agertu da.

18. Sagarrondoaren erostea Ikastolaren alde : Herriak proposatzen du kontseilari bakotx sagarrondo baten erostea Seaskako lizeo berriaren alde, 30 €tan sagarrondo.

Herriko kontseilua, 18 sagarrondoaren erosteko, alde agertu da, 18 boz alde eta abstentzio bat.